

ELGOIBAR - 758. zenb. - XVIII urtea - 2010-10-29

# B
BARREN

TOKIKOM

# Begiak haitzetan
## Sare Gurrutxaga, eskalatzailea

residencial
GÉMINIS

**230.000 €tik** aurrera
garajea eta trastelekua barne




- Etxebizitza BERRIAK
- Banco Guipuzcoanok finantzatutako obra
- Berahala eskrituratzeko aukera
- Egungo etxebizitza saltzeko helburuarekin erosketa geroratzeko aukera
- Bi etxebizitza-eredu bisitatzeko aukera
- Horma-armairu eta guztiz hornitutako sukaldearekin



Santa Klara kalea, 32 C - Behe solairua B

Tel. 943 74 44 67 ELGOIBAR

# Aupa, gaztia!

Barixakuan eruan zinttuen beste hamahiru gazterekin batera. Euren burua "demokratatzat" daukenek berriz ere argi laga ziguen zein dan euren bakerako proposamena.

Hogei ordu, hogei ordu luze eduki zinttuen miaketetan, aurpegixa estalitta ekarri zinttuen, ganadua izango baziña bezala. Badirudi kanpuan zuri animo eta babesa helarazten bildutako jendetzak amorratu egin zittuala "gure segurtasuna bermatzen deben agentiak", bai polizia espaiñiarra eta baitta, eta batez ere, ertzaiñak, haien jarrera oldarkorrak agerian laga zaban bezala.

Zortzi orduren ostian atera zinttuen Kimetzetik. Harro, tinko, irribarria ahuan zenduala, eta gogor betiko legez, jakin bazenkixalako zure delitu bakarra gaztia izatia eta zure herrixaren alde borroka egittia dala.

Etxeko zein Kimetzeko miaketan zeunden bittartian, bageunkan beste kezka bat. Non ote dauke Edu? Eguerdittik ez gendun haren barririk izan, eta arratsaldeko 19:30ak arte, ezin izan gendun gaiñetik kendu kezka hori. Ordu horretan jakin gendun etxian zeukatela, bahituta. Hamahiru ordu luzez euki zeben Poliziaren esku, iñori iñongo azalpenik eman gabe, eta inpunitate osoz.

Lau egun pasa dittuzu etsaiarekin. Lau egun luze eta gogor; lau egun zure barririk jakin gabe, nun, nola, eta zer egitten ari jatzuzen jakin gabe.

Guk argi daukagu zuk, beste hamahiru gaztiek bezala, Euskal Herri sozialista eta independente baten alde lanian jarraittuko dogula, oraindik eta gogo eta indar gehixagorekin.

Besarkada iraultzaille pilla bat. Maitte zaittugu!

Sandra Gonzalez eta Nere Aranberri



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan:
943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**"Euren burua 'demokratatzat' daukenek berriz ere argi laga ziguen zein dan euren bakerako proposamena"**




Zergatik babesten duzu BARREN?

BIDATZ AZPIAZU

"Horrenbeste urte eta gero herriaren parte bihurtu delako BARREN, parte oso inportante gainera. Jende askorentzat euskaraz irakurtzen duen argitalpen bakarra da gainera. Eta, oro har, euskararen alde gure esku dagoen dena egin beharko genukeelako"

Ni ere banaiz BARREN!



# SARE GURRUTXAGA

ESKALATZAILEA



## “Lehenengo egunetik harrapatu ninduen eskaladak”

**Sare Gurrutxaga orain dela lau urte lotu zitzaion eskaladari. Azpeitiko harrobian egin zuen estreinako ekinaldia, eta orain, ahal duen oro joaten da eskalatzera. Eta ez edonora, gainera. Azken bi urteotan Kaliforniako eta Hego Afrikako haitzetatik zintzilikatuta pasatu ditu udako oporrak. Lagunak, bikotekidea eta askoz gehiago eman dio eskaladak.**

**Noiz eta nola hasi zinen eskalatzen?**

Atzo hasi nintzela dirudi, baina lehenengo aldiz arnes bat jantzi nuenetik lau urte pasatu dira dagoeneko. Lagun batek animatuta probatu nuen eskalada, baina egun hartan surfa egiten zuen lagun bat ezagutu izan banu, gaur, akaso, surfa egingo nuke! Orain dela bost urte ez nukeen pentsatuko gaur eskalatzen jardungo nuenik. Beti esaten dut berandu hasi naizela eskalatzen, baina betidanik izan naiz kirolzalea. Azpeitiko harrobian izan zen nire estreinako aldia. Horma baten azpian jarri nintzen, eta goraino igotzea lortu nuen. Liluratuta geratu nintzen, eta lehenengo egunetik harrapatu ninduen eskaladak. Eskalatzeko idearik ere ez neukan, eta uste baino hobeto moldatu nintzen. Horrek aurrera jarraitzeko gogoa eman zidan. Hala ere, lehenengo urte hartan ez nuen asko eskalatu, baina azken hiru urteotan, nire denbora librearen zati handiena eskalatzeari eskaintzen diot. Hori da nire zaletasuna. Eskalatzea eta horrek bere inguruan daukan guztia gustatzen zait.

**Nola hartu zuten etxean zure afizio berria?**

Hasieran oso gaizki, aitak batez ere. Eskalada arriskuarekin lotzen zuten. Aitak behin baino gehiagotan esan zidan Zumaiko arraun taldean jendea behar zutela eta hobe nuela bertan izena ematea! Denborarekin ohitu egin dira, eta orain ez didate galdetzen asteburuan zer egin behar dudan, nora joango naizen baizik.

**Neska gutxi dabiltza eskalatzen. Oraindik ere neska eta mutilen kirolak bereizten direla uste duzu?**

Oraindik neska gutxik eskalatzen dugu, baina gero eta gehiago gara. Neskak eskalatzen ikustean izugarri pozten naiz. Neska askok indarrarekin lotzen dute eskalatzea, baina hori baino askoz gehiago da. Indarra beharrezkoa da, baina hori landu egin daiteke. Teknika, psikologikoki burua hotz edukitzea, elastikotasuna... dena da beharrezkoa, eta neskak ezaugarri horietako asko ditugu. Kirol oso aberasgarria da, eta hemendik neska guztiak animatu nahiko nituzke eskalada probatzera.

**Zein ezaugarri behar ditu eskalatzaile batek?**

Atzamarretan indarra edukitzea ezinbestekoa da, baina hori poliki-poliki lortzen da. Elastikotasuna ere oso garrantzitsua da, baina hori ere landu egin daiteke. Nire ustez, garrantzitsuena psikologikoki indartsua izatea da. Norbere burua proban jarri, eta egunetik egunera proba horiek gainditu nahi izatea da garrantzitsuena. Beldurra denok pasatzen dugu, bakoitzak bere mailan, jakina, baina beldur hori gainditzeak izugarrizko gozamena ematen du. Jendeak kirol arriskutsutzat dauka eskalada, eta eskalatzaileak oso ausartak direla uste dut Ni guztiz kontrakoa naiz, baina eskalatzen dut. Eskalada oso kirol zabala da, eta ni arrisku gutxien duten bi modalitatetan ibiltzen naiz: kirol eskalada eta bulderra. Kirol eskalada sokekin egiten da, horretarako prestatuta dauden hormetan. Jendeak sekulako lana egin du, borondatez, hormak besteontzako prestatzen, eta hori eskertzekoa da. Sokan binaka eskalatzen da, eta pertsona horrekin konfiantza edukitzea ezinbestekoa da. Nik mutil lagunarekin eskalatzen dut gehienetan. Bulderra, bestalde, sokarik gabe egiten da, haitz txikiagoetan. Askoz bortitzagoa da, eta mugimendu indartsuagoak egin behar dira. Azpian koltxoneta bat jartzen da, ez da material askorik behar. Sozialagoa da, eta taldean praktikatzeko oso aproposa.

> **“Oraindik neska gutxik eskalatzen dugu, baina gero eta gehiago gara”**

**Ofizioz fisioterapeuta zara. Lagundu al dizu zure lanbideak eskaladan?**

Nik beti esaten dut ez dakidala nire lana den edo entrenatzeko modua. Rokodromora joan beharrean lanera joaten naiz! Atzamarretan indar handia daukat, bai. Nire lanbideak laguntzen du horretan, eta lehen ere eskubaloian ibilitakoa naizenez, besoak ere landuta dauzkat. Orain arte egindakoak asko lagundu dit eskaladarako beharrezko ezaugarriak garatzen. Hala ere, rokodromoan entrenatzea garrantzitsua da. Konstantea izan behar da. Rokodromoan entrenatuz gero, haitzean hobeto moldatzen zara.

**Zer eman dizu eskalatzeak?**

Psikologikoki izugarri lagundu dit. Eskalatzen nabilenean ez dut beste ezertan pentsatzen, eta nire eguneroko buruhausteak alboratzeko balio dit. Era berean, neure burua proban jartzeko balio dit, eta beldurra gainditzen laguntzen dit. Erortzeari beldurra diot, eta beldur hori gainditzeak sekulako gozamena ematen dit. Ahalegin horren ostean lagun artean hartzen dugun garagardoak ez dauka preziorik. Baina batez ere, lagunak, bikotekidea eta leku berriak ezagutzeko aukera eman dit eskaladak.

**Zerk eraman zaitu Hego Afrikara eta Kaliforniara eskalatzera?**

Euskal Herrian eskalatzeko toki oso onak eta politak daude, baina askotan ikusi ditugu. Araotz (Gipuzkoa), Larraona (Nafarroa) eta Apellaniz (Araba) izugarri gustatzen zaizkit, esate baterako. Asteburuetan hemen inguruan ibiltzen gara, baina jai-zubi luzeagoetan Kataluniara, Madril aldera edo Pirinioetara joateko aprobetxatzen dugu. Eta azken bi urteotan udako oporraldia ere eskalatzeko aprobetxatu dugu. Iaz, Kaliforniara joan ginen, eta aurten, Hego Afrikara. Bi toki horietan bulderra praktikatu dugu, batez ere. Material gutxiago behar da, eta bidaiatzeko aukera hobea eskaintzen du. Bi leku horiek bulderra praktikatzeko leku ezinhobeak dira. Jende askok esan digu nola joan daitekeen hain urrutira eskalatzera, baina inork ez du zalantzan jartzen munduko futbol txapelketako partida bat ikustera Hego Afrikaraino joatea. Guk turismoa egiteko ere aprobetxatu dugu, baina gure erara. Bikotekidearekin zaletasuna konpartitzea oso garrantzitsua da, bestela oporretako planak egiteko borrokan ibiliko ginateke.

**Noraino iritsi nahiko zenuke?**

Afizio bat da, eta eskaladarekin gozatzea da nire helburua. Zailtasuna handitzen joaten gara, eta beti apur bat gehiago eskatzen diogu geure buruari, baina ez da lehiaketa bat. Unibertsitatean hartu nuen parte pare bat txapelketatan, baina hori ez da nirea. Disfrutatzea da nire helburua, eta txapelketan ez nuen batere disfrutatu. Tentsio eta presio gehiegi sentitu nuen. Kirol batzuk lehiatzeko sortu dira, baina nik ez dut horrela hartzen eskalada.

---

**Ainhoa Andonegi**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: *barren@elgoibarkoizarra.com*.

**...ta segi aurrera!**

Beste behin ere atxiloketak, beste behin ere inkomunikazioa. Beste behin ere, errepresioaz baliatzen den Espainiako Gobernu "demokratikoak" argi laga du zein den eurek hainbeste desio duten "bakea" lortzeko modua.

Ostiralean, polizia arrotzez bete zen gure herria. Nonbait, gazte arriskutsu eta terrorista bat zebilen Elgoibarren, eta Aresek, Rubalcabak, Marlaskak, Zapaterok, Lopezek eta konpainiak atxilotu eta inkomunikatu egin zuten, "gure segurtasuna" bermatzeko. Gezurra zirudien: gure artean emakume kriminal bat zegoen, eta gu ez geunden jakinaren gainean!

Ainara eta beste hamahiru atxilotuak gazte konprometituak dira, Euskal Herri independiente eta sozialista baten alde lanean dihardutenak, eta horregatik daude kartzelan. Atxiloketa hauek agerian lagatzen dute Espainiako Gobernuaren ikara; badaki aske izan nahi duen herri bat duela parez pare, indartsu, eta askatasuna lortzeko borrokan. Lotsagarria, nazkagarria eta onartezina da PSOEren jarrera. Askatasunen aitzakian, gazteria independentista jazartzen, atxilotzen, torturatzen eta kondenatzen dute. Baina alferrik dabiltza modu horretan beldurtu eta isilduko gaituztela pentsatzen badute! Eraso honek gure lanean tinko eta gogor jarraitzeko indar gehiago ematen digu, badakigu eta, irabazteko dugun Euskal Herriak merezi duela! Ainara, ez etsi, duintasunez jarraitu ta eutsi zure borrokari! Maite duzun herria harro dago zutaz! Maite zaitugu!

**Elgoibarko Segi**

**Ainarari eskutitza**

Aupa, gaztia! Zer moduz zaude?

Nik ere a zer nolako galderak egiten ditudan. Nola egongo zara bost egun estatu españoleko polizia nazionalen eskuetan inkomunikaturik egon eta gero, (ez dut pentsatu ere egin nahi zer jasan behar izan duzun) eta orain auskalo nongo espetxetan zaudela, batek daki zenbat denborarako... baina badakizu, eskutitzak hasteko modu bat besterik ez da.

Lehengo ostiralean lanera nindoanean, azken polizia operazioaren berri izan nuen irrati bidez, baina egia esateko lanera heldu eta ez nuen ezer komentatu, ohituta gaude horrelakoak bizitzera, eta azkenean ezer gertatu ez balitz bezala jokatzen dugu. Arratsaldean jakin nuen zu zinela horietako bat.

Ez da oso azkarra izan behar ikusteko herri honen alde lanean ari den oro paretik kentzea dutela helburu. Lanean gizartea aldatzeko, gazteen eskubideen alde, emakumeen eskubideen alde, ingurumena babesteko, herri honi dagozkion eskubideen alde... Hori baita zuek eta zuen aurretik eraman dituzten ehunka gaztek egin duten delitua; antolatu, gizartea eraldatzeko.

Ezin dut gehiago. "*Ya no me callo*"; gure garaia heldu da. Herritarrok ez baditugu gure eskubide zibil eta politikoak defendatzen, zeinek egingo du?

Egia esaten badizut, kursi geratzeko beldurrik gabe, oso harro sentitzen naiz zure irakasle izanaz. Euskal Herriak zu bezalako gazte gehiago behar ditu; herri hau beste eszenatoki batera eramateko Ainara gehiago behar ditugu, eta hori ez da ondo gelditzeko, benetan sentitzen dudalako baizik.

Beno gaztia, amaitzera noa. Zauden ziegan zaudela, muxu handi bat eta besarkada bero bat. Animo eta eutsi goiari, garaipena geurea izango da-eta!

**Eba Zilbeti**

**Aupa gaztia!**

Gogoratzen zaittugu manifetan, prentsaurrekuetan, kontzentretan, pankartak egitten, kartelak pegatzen, herri bazkarixetan edo ekitaldixetan. Gogoratzen dogu herrixan egin dozun lan politikua, eta ez dogu ahazten.

Baina bereziki halakoetan gogoratzen zaittugu: Iratxuan kafia hartzen, Txurixan lanian edo dantzan, jaixetan lagunekin errekan behera bajatzen, Plaentxiko nesken pala-txapelketan parte hartzen, lagunei laguntzen, lagunekin ondo pasatzen, kontzertuetan, antzerki bat ikusten edo afari batian. Gogoratzen dogu zure '*aupa gaztia*', eta baitta zelan gustatzen jatzun Lanbroa kanpuan jarri eta berriketan lagunen kontuak entzun eta zuriak kontatzia. Zaran lagun moduan gogoratzen zaittugu.

Eta horregaittik ez zaittugu ahaztuko, Aina. Ez diguelako militante bat bakarrik eraman; lagun bat eraman diguelako.

Eutsi, Aina! Egin aurrera zuk dakizun moduan, eta jaso hemendik, indarrez bialtzen dizuguzen besarkada eta txillixo ozenak: Maitte zaittugu!

**Lagunak**

Barren

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112
Faxa: ☎ 943 743 704
E-posta: *barren@elgoibarkoizarra.com*
Publizitatea: ☎ 943 743 704
E-posta: *barren.publi@elgoibarkoizarra.com*

Argitaratzailea: ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Eneritz Lazkano, Izaro Etxegibel MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo.
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855





Ainara Sedano

Epa, Noe. Kotxe berria erosi duzu? Nik bai, eta hiru gainera. Bat, astelehen eta astezkenetarako; beste bat, astearte eta ostegunetarako, eta hirugarrena, asteburura-ko. Eta zein baino zein handiagoa eta garestiagoa. Eta lanik gabe al zaude? Ni bai, agian lan mordo bat egin, aberastu eta orain bizitzeari ekin diot. Edo… loteria tokatuko zitzaidan, edo… norbaiten kontura biziko ote naiz? ai!!! A zer aurpegia! Eta etxe berria erosi duzu? Eta berri horietakoa gainera? Eta azken pisua? Duplex-a agian? Ba bai, berriena eta handiena, eta baita garestiena ere. Gainera, Armani bera etorriko da pertsonalki dekorazio egokiena aukeratzera. Eta gero Carmen Lomana etxea inauguratzera. Oraindik argi ez daukadana zera da: asteleheneko autoarekin jasoko dudan, edo-eta txoferra bidaliko dudan bere bila asteburuetako limusinarekin. Zer gomendatzen didazu zuk?

## “Ez al dugu nahiko nork bere bizitzarekin?

Alaskak dioen bezala: “La envidia es como un puñal ¿a quién se lo voy a clavar?. Criticar por criticar”. Zergatik dugu hain gustuko besteen bizitzari buruz jo eta su aritzea? Eta are gehiago, gutxi dakigunean informazioa gure erara moldatzea! Ez al dugu nahiko nork bere bizitzarekin? Nik uste horrek behar duela izan. Beraz, hitz egin dezatela eta asko, eta galdetzen dutenean, istorioa hirukoiztu (nire hiru autoen kontuaren moduan). Eta, agian, zurrumurruak herri guztiari buelta emandakoan, eta guztiz hazita gure belarrietara bueltatzen denean, kafe bat hartzera gonbidatuko zaitut,eta barre batzuk behintzat egingo ditugu elkarrekin. Limusina pasako da Plaza Handiko zubitik, zure bila pasatzen naizenean?



Noemi Otegi

Limusina ez dakit Txankakuako zubitik pasatuko den, baina ia-ia ni pasatu nintzen nire ezkontza egunean, nire txofer partikularrak egun hori benetan berezia izan zedila nahi zuelako, hasiera-hasieratik! Baina, tira, hori ez da kontua! Nahiz eta egia esan, Txankakuatik sartu izan bagina txutxumutxuka orduak eta orduak pasatzeko beste arrazoi emango genituen!!

Nik froga txiki bat proposatu nahiko nieke gure irakurleei, inork irakurtzen bagaitu behintzat!! Eskatu diezaiotela euren inguruko norbaiti kronometra ditzala besteak kritikatzen edo besteei buruz deus jakin gabe berbetan pasatzen duten denbora. Benetan harrigarria egingo zaie emaitza; harrigarria eta tristea ere bai, agian.Tristea baita bizitza bakarra izan, eta hori besteei buruz hitz egiten eta gaizki esaka pasatzea.

## “Tristea baita bizitza bakarra izan, eta hori besteei buruz gaizki esaka pasatzea”

Ezin dut ulertu nola garen hain berritzaileak eta ulerkorrak, eta aldi berean, hain atzerakoiak. Teleberriko bizitza alternatiboak ulertzen eta txalotzen ditugu, baina gure bizilagun edo senitartekoaren apartekotasunak txutxumutxu bihurtu behar ditugu halabeharrez. Denbora zerbaitetan pasa behar da, bai, baina ez ahaztu bizitza bakarra dela eta komeni dela ondo aukeratzea zeri emango diogun berriro bueltatuko ez den denbora.

Elgoibarko Udala
Mendaroko Udala
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DANOBAT
kutxa
GOITI
GRUPO DANOBAT

# Ainara Ladron kartzelatzeko agindu du Grande-Marlaska Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak

## Ainara Ladronen etxeaz gain, Kimetz elkartea eta Edu Castilloren etxea miatu zituzten



Joan zen barixakuan atxilotu zuten Ainara Ladron elgoibartarra, eta eguaztenean kartzelatzeko agindua eman zuen Grande-Marlaska Auzitegi Nazionaleko epaileak. Segiren zuzendaritza berriro osatzeko bilera eta bilkuretan parte hartzea leporatuta atxilotu zuen Espainiako Poliziak, beste hamahiru lagunekin batera.

Edu Castilloren etxean atxilotu zuten Ainara Ladron, 13:00ak aldera. Kimetz elkartean zegoen Castillo Poliziak atxilotzeko aginduaren berri eman zionean. “Etxeko giltzak emateko edo atea botako zutela esan zidaten. Etxean sartzeko agindua erakutsi zidaten”, jakinarazi du Castillok. Etxera eraman zuten handik, eta han atxilotu zuten Ladron. Handik, bere etxera eraman zuten gero Ladron, eta bi-hiru orduz izan zuten han, Poliziak etxe guztia miatu arte. Kimetz elkartera eraman zuten ondoren, eta handik Castilloren etxera atzera.

Tarte horretan, 13:00etatik 1:00ak bitartean, etxe barruan izan zuten Castillo. “Inork ez zekien Edu non zegoen, eta une larriak izan ziren. Hedabideetako webgune batzuetan atxilotutakoen artean ageri zen bere izena, baina polizi-etxera deituta ere inork ez zigun ezer argitu. Ainara atxilotzera etorritako polizietako bati galdetu genion, eta Elgoibarren atxilotu bakarra zegoela esan zigun hark. Poliziak etxean sartzeko agindua zuen bakarrik, eta horrenbestez, hamahiru orduz bahituta izan zuten Edu”, adierazi du Jon Garate ezker abertzaleko kideak. Etxean bi poliziak zainduta izan zuten denboran “tratu duina” jaso zuela jakinarazi du Edu Castillok.

Elgoibarko miaketa guztiak egin ostean, Eibarko Arrano elkartera eraman zuten Ainara Ladron, eta 8:00ak aldera arte izan zuten han, harik eta miaketa amaitu eta Madrilera eraman zuten arte. Lau egunez inkomunikatuta izan zuten, eta eguaztenean hitz egin ahal izan zuen konfiantzazko abokatuarekin. Inkomunikatuta izan duten denboran mehatxuak jasan dituela esan dio abokatuari, eta ariketa fisikoak eginarazi dizkiotela. Animoz, baina, “indartsu” dagoela esan dio.

## Karenatuen diseinuari buruzko ikastaro berritzailea hasi dute MEKAn



Erreminta makinaren sektorean garrantzi handia hartu du karenatuak –makina janzten duen txasisa–, eta beharra ikusita, karenatuen diseinuaren inguruko ikastaroa hasi dute Meka Albitxuri zentroan, Kalman, Ibarmia, Pixel Sistemas, TresD eta Danobat enpresen parte-hartzearekin. Ikastaro berritzailea da, orain arte beste inon ez zutelako eskaintzen.

Hain justu ere, karenatuan erreferentzia izateko asmoarekin sortu zuten, besteak beste, Meka Albitxuri lanbide heziketa zentroa, eta hasi da helburu horretara ailegatzeko lehenengo aurrera pausoak ematen, Asun Larrañaga Mekako zuzendariaren arabera. Goi mailako lanbide heziketa ikasketak dituzten hamahiru lagun ari dira ikastaroa egiten. Guztira, 400 orduko prestakuntza jasoko dute horiek, eta ikastaroak master baten pareko maila izango du.

Kalman, Ibarmia, Pixel Sistemas eta TresD enpresetako adituek lagundu dute ikastaroa diseinatzen. Karenatuaren alorrean ari dira hiru enpresok, eta etorkizunean euren enpresetan lan egin dezaketen langileak trebatzeko, beharren araberako ikastaroa prestatu dute.

## Lekua Olasoko kanposantua



Astelehenean, azaroaren 1ean, Domusantu eguna da, eta hilerrira joaten diren herritarrek aldamioz jositа aurkituko dute Olasoko atea. Sigmako errotondako obrek pitzadura batzuk sortu zituzten iaz, eta oraindik ez dituzte konpondu. Arku bat konpondu dute dagoeneko, baina oraindik sarrera pareko arkua konpontzea falta da, eta obra horiek azaroaren 2an hasiko dituzte.

## Zenbakia 36.000

Elgoibarko Udalak 36.000 euro gastatuko ditu Gabonetako argietan, 2009an baino 1.120 euro gutxiago. Guztira, 76 argi jarriko dituzte herri guztian zehar; hau da, erdigunean eta baita auzoetan ere. Horrez gain, hiru eszenatoki irudikatuko dituzte argiekin Osasun Zentroaren aurreko berdegunean, Urasandiko haur eskolan eta Sigmako josteko makinan. Era berean, udaletxea, Kultur Etxea, San Lazaro egoitza eta parrokia modu berezian atonduko dituzte. Gabonetako argiak abendu hasieran piztuko dituzte, eta urtarrilaren 15ean kenduko dituzte.

## Irudia Arrautza berdeak

Francisco Gallardo eta Manoli Bolaños eguenero etortzen dira merkatu plazara, baina joan zen astean produktu bitxi bat ekarri zuten: arrautza berdeak. Euren oilategiko oilo bat arrautza berdeak erruten hasi dela-eta harrituta daude. Kolore arraroa duten arren, barrutik arrautza ohikoak direla azaldu du, eta jateko modukoak direla gehitu du.



### Arnaldo askatu, politika askatu plataformakoen bilera azaroaren 4an

Arnaldo askatu, politika askatu plataformako kideek bilera informatiborako deia egiten die herritarrei, azaroaren 4rako. Hilaren 11n epaituko dute Arnaldo Otegi Madrilen, Joseba Permach eta Joseba Alvarezekin batera eta horren gaineko informazioa eskainiko dute. Gaiarekin kezkatuta eta interesatuta dauden guztiak gonbidatu dituzte bilerara. Bilera 19:00etan izango da Kultur Etxean.

### 1942koen eta 1985ekoen kinto bazkariak

1942an jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute azaroaren 20an Sigma jatetxean. Interesatuek 50 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan, hilaren 15a baino lehen. 3035 0007 28 0071120102. 1985ean jaiotakoek, bestalde, euren mende laurdena ospatuko dute azaroaren 6an. Sigma jatetxean egingo dute bazkaria, eta interesatuek 30 euro sartu beharko dituzte Kutxako kontu korronte honetan, urriaren 30erako. 2101 0085 89 0127580645.

### Baserritarrak eta bezeroak gerturatzeari buruzko hitzaldia, eguenean

Baserriko produktuak saltzen dituztenak eta erosleak gerturatzeko Basherri egitasmoa sortu du EHNEk (Euskal Herriko Nekazarien sindikatua), eta horri buruzko hitzaldia eskainiko dute eguenean. 19:00etan hasiko da hitzaldia, Kultur Etxean.

### Atzegik boluntarioak behar ditu

Atzegi adimen urritasuna duten pertsonen familien elkartea da, eta pertsona horiekin lan egiteko boluntarioak behar ditu. Lanerako ilusioa soilik eskatzen dute. Interesatuek 943 423 942 telefonora deitu.







# anjel lertxundi

**Liburu bat eskuan duela irteten da goizero kalera, eta gaur ere hala dator Anjel Lertxundi (Orio, 1948) Argiñanoren jatetxean Barrenekin duen hitzordura. Malekoira begira jarri, eta bezperan nahiz goizean bertan idatzitako lerroak zuzentzen ditu han ia egunero, eguerdi aldera. "Zuzenketak paperean egitea gustatzen zait", dio. Apaltasunez mintzo da. Euskaraz, literaturaz, eta kazetaritzaz ari da, urteetako eskarmentuak ematen duen patxadaz.**

**Ainara Argoitia**

## "Mundua hobetzen laguntzen du literaturak"

**Espainiako Sari Nazionala irabazi berri duzu *Eskarmentuaren paperak* saiakera liburuarekin. Espero zenuen?**
Ez, ez. Banekien Euskaltzaindiak izendatutako epaimahaiak sariketara aurkeztu behar zuela, baina sariketa guztietan egoten dira euskal obrak, eta ez nion beste garrantzirik eman horri. Ezustekoa izan da niretzat. Harritu ere egin nau egia esan, liburua ez delako saiakera konbentzional bat. Egia da saiakera askotarako abiapuntuak daudela eta tesiak ere jaso ditudala, batez ere hizkuntzarekin eta literaturarekin lotutakoak, baina ez da ohikoa halako lan bat saritzea.

Aitortzen dizut poza hartu dudala, hain justu ere, horrexegatik. Orain arte saritutakoak oso obra akademikoak izan dira. Tesia jasotzen zuten, baina nik uste dut saiakeretan hizkuntzak ere indar handia izan behar duela, eta iruditzen zait saiakera unibertsitarioek hizkuntzaren *plus* hori falta izaten dutela.

**1970ean argitaratu zenuen lehenengo liburua: *Hunik arrats*. Noiztik zara, baina, idazle?**
Oso zaila da jakiten. Gogoan daukat 12-13 urterekin, seminarioan, nola idazten nuen nire lagunei irakurritakoari buruz. Konturatu gabe egiten nituen gauza horiek. Nekien gauza bakarra zen gustura egiten nuela. 14-15 urterekin, irakurtzen nituen liburu maiteen zerrendak osatzen nituen, eta beraz, banuen halako miresmenezko jarrera bat idazleenganako. Inoiz ez nuen pentsatu idazle izango nintzenik, baina konturatu gabe haien bidea hartu nuen.

**Bizitzeko adina ematen ez duen ofizioa ei da zurea. Zein da zure idazle ofizioari eusten dion sinesmena?**
Ez naiz literatura egitetik bizi, ez. Literaturara bakarrik dedikatzeko aukera izan banu, aspaldi nintzen hartara bakarrik jarria. Eguneroko bizitzari lapurtutako orduekin egindako lana da hau. Gidoigintzak, *BERRIA*ko zutabeak eta abarrek ematen didate jaten, eta ez literaturgintzak. Erretiroa hartzeko amorratzen baldin banago, hain justu ere, horregatik da: idazteko lasaitasuna izateko.

**"Idazten segitzen dut, munduan zerbait aldatzeko adinako indarra banu bezalako tentsio eta sinesmen batez". Literaturak zein neurritan alda dezake mundua?**
Ez dut sinisten literaturak mundua alda dezakeenik, mundua aldatzea zer den ere ez dakidalako oso ondo, baina esan dezakegu



mundua hobetzen laguntzen duela literaturak. Gure barrua hobetzen laguntzen duen neurrian laguntzen du literaturak mundua hobetzen. Hausnarrean jartzen gaituen heinean, literatura ari da zerbait egiten mundu hobeago baten alde, eta ez da gutx.

**Oscar Wildek hala zioen: “Idazle baten pretentsio benetan ezinezko bakarra: inor molestatu gabe idaztea”. Irakurleak kezkatzen zaitu?**

Saihestezina da inor molestatu gabe idaztea. Nahi ez bazenu ere, zure testuarekin leial baldin bazara behintzat, ia derrigorra da.

**Hizkuntzarekiko kezka hori obsesiotik gertu dago zure kasuan.**

Nik ez dakit beste idazleek bizi izan duten, baina nik bizi dut tentsio hori. Ni ikastolan hasi nintzen irakasle, 70eko hamarkadan, Franco hil aurretik. Urte zailak ziren, eta euskararenganako kezka etengabea zen. Gero, nire bilakaera literarioan, oso-oso presente egon da euskararenganako kezka hori. Bi tentsio horiek, euskararen egoerarena eta literatura egin nahiarena, beti egon dira uztartuta. Zenbateraino izan zaidan tentsio hori mesedegarri edo kaltegarri ez dakit, baina pentsatu nahi dut ez dela izan euskararen kalterako.

**Gaztelaniaz euskaraz baino errazago irakurtzen dutela esaten dute oraindik askok. Zer erantzukizun daukagu euskalgintzan diharduguno k?**

Hori beti gertatuko zaigu. Guk egunean zehar konturatu gabe irakurtzen duguna euskaraz baino gehiago da gaztelaniaz. Hasi botika baten prospektutik eta egunak ematen digun irakurtzeko beste aukera guztietara erdara presenteago dago euskara baino, eta orduan, begiak eta burua bera ere ohitu egiten zaizkigu beste hizkuntza horretara. ‘Zein eskandalagarria’, pentsa dezake batek, baina ez da eskandalagarria. Hori hala dela onartu behar dugu. Hortik abiatuta, hausnarketa bat egin behar dugu, eta estrategia bat pentsatu, baina demonizatu gabe. Horren kontra baino gehiago, euskal irakurketaren alde nola egin dezakegun pentsatu behar dugu, eta hori da, nire ustez, egiten ez dugun hausnarketa.

**Ahal izango bazenu perpausa arinduko zenukeela diozu liburuan. Zeintzuk dira euskararen traba handienak?**

Euskara eguneroko lanabesa duenaren perspektibatik ari naiz hori diodanean. Desberdintasunak eta singulartasuna oso gauza handiak dira, baina horrekin batera, singulartasun horrekin batera, zailtasunak ugaritu egiten dira. Inguruko literaturek modu batean jokatzen dute, eta guk beste modu batean egin behar dugu. Perpausak luzatzen zaizkigu guri, menpeko esaldi bihurriak egiten ditugu… “Zeren eta” eta antzeko partikulak erabili behar dira? bai ala ez? Konforme; literarioki funtzionatzen dute, baina ahozkorako ez dute balio. Idazten duguna irakurleari erabat arrotza egiten bazaio, jai daukagu. Niri artifizial egiten bazait, nola demonio lortuko dut nik irakurleari natural egitea?

**“Euskarak badu letren zera hori, baina ahozkotasunean galdu egin dugu”**

**Ahozkotasunaren gaineko kezka oso zeurea duzu. Zerk kezkatzen zaitu?**

Ahozkotasunean atzera egiteak. Orain 50 urte ikastolak sortu genituen, eta ia bateratsu etorri ziren gero gau-eskolak eta euskal prentsaren gaineko aldarrikapena. Euskarazko telebista eta irratia sortu genituen gero, eta pentsatu genuen dena egina genuela. Lehen, premia bati erantzuten zitzaion, baina orain, tresna sortu dugu eta pentsatu dugu tresna sortuta dena egin dugula. Lehen, ikastolara etortzen zirenek jariotasuna ziurtatuta zuten; orain, ez. Euskara prestigio kultural baten premian zegoen lehen, eta hala etorri zitzaigun presidente bat, Suarez, esanez euskarak ez zuela balio fisika irakasteko. Baina erakutsi dugu baietz. Gaur inork ez du hori zalantzan jartzen, eta euskarak badu letren zera hori. Aldiz, bestetik galdu egin dugu, eta asko gainera. Estrategia falta zaigu.

**“Susmoa dut orain ez ote dugun literaturaz jardutea saihesten”. Hala bada, zergatik?**

Nire pertzepzioa da. Uste dut literaturan bezala beste kontu askotan ere gertatzen dela hori. Oso zabaldua dago fenomeno hori. Gero eta gehiago mugatzen da bakoitza bere baitara, eta gero eta gutxiago partekatzen dugu. Gizartea ez da batere parte-hartzailea. Orain hamar-hamabost bat urte, astero-astero biltzen ginen taldetxo bat Aginagan, literaturaz eztabaidatzeko eta batak besteari gomendioak egiteko. Orain, ordea, askoz gutxiagotan biltzen gara geu ere.

**Denetarik landu duzu. Ipuinak idatzi dituzu, nobelak, saiakerak… Poesiatik asko dute zure lanek, baina poesia da gutxien landu duzuna. Zergatik?**

Ez dut landu. Idatzi dudan apurra etxean daukat, kaxa batean gordeta. Erdaraz idazten nuen nik poesia. 16 urterekin egin daitekeen poesia, jakina, baina poesia, azken batean. Garcia Lorca, Juan Ramon Jimenez, eta Blas de Otero imitatzen nituen, eta baita Leon Felipe ere, erregimenak baztertuta zeukanez, bazeukalako halako *plus* bat. Orain, euskaraz idazten dudan poesia oso urrutikoa egiten zait. Auzo-lotsa ere ematen dit batzuetan, eta beste askotan *ez neurea* sentitzen dut.




**Elkarrizketa batean irakurri dizut *Carla* dela zure liburu estimatuena. Elkarrizketa berean diozu porrot bat izan zela. Nola ulertu behar dugu hori?**
Porrot bati buruzko liburua da, eta porrota izan zen. Gutxitan izan dut nik hainbeste ilusio liburu batean, eta, jakina, horrek gehiago frustratzen zaitu. Nitaz hitz egiten dut asko, nik ditudan arazoez, baina ez nago irakurlean pentsatzen. Oso urrutira egiten dudan bidaia da, bai literaturaren aldetik eta baita euskararen aldetik ere, besteak beste, oso muturrera eraman nuelako Altuberen sistema. Hala ere, orain arte egin dudan lan guztietan hark [*Carlak*] pentsarazi dit gehien. Ez da liburu borobildua, eta ez dut nobela ontzat, baina niretzat oso lagungarria izan zen, eskarmentu pixkat eman zidalako.

**Egunero idazten duzu BERRIAN. Gai baten inguruan jarrera oso argia hartuz gero, zutabegile partziala; bi aldeak salatuz gero, berriz: ekidistantea. Ez da erraza zutabegile izatea, ala?**
Kezkatzen nau horrek, ez dizut gezurrik esango, baina gero eta gutxiago. Nik uste dut urteetan aurrera zoazen heinean, eta batez ere, zure lanean aurrera egiten duzun neurrian, besteak beste, askatasunean irabazten duzula. Irakurleekiko konplizitatea ere hor sartzen dut nik. Zuhurtasuna ere eskatzen du lan honek, jakina, eta zuhurtasunaz ari naizenean ez naiz termino politikoetan ari, pentsamenduaren terminoetan baizik. Nik badakit momentu jakin batean noraino tenkatu dezakedan soka. Badakit muturreraino eramanda, soka eten ere egin daitekeela, eta hori ere ez zait interesatzen.

**Adibidez?**
Muturreko adibide bat jarriko dizut, hemen apartheid hitza erabiltzen hasi zirenekoa. Egia da egoera politiko guztiz bidegabea gertatu zela herri honen parte handi baten kontra. Ez zen izan arraza kontuagatik, egoera politiko zabal batengatik baizik. Apartheid hitzak dituen konnotazioak oso mingarriak dira, baina. Apartheid egoeran, beltzek ezin zuten eskola askotara joan, ezin zuten denda askotara sartu, ezin zituzten gauza asko egin. Hori jakinda, gure egoera izendatzeko apartheid hitza erabiltzea ez zait iruditzen zintzoa, eta ezta zorrotza ere. Ez diezaiogun deitu zerbaiti ez dena. Zutabegile naizen aldetik, badakit hau esanda asko eta asko sutu egingo direla, baina esan beharra daukat, euskarari eta zorroztasunari ez ezik hitz hori erabiltzen ari denari ere egingo diodalako mesede, inork esan ezean guztiz zilegi zaiola pentsatuko baitu.

## “Hitzak berebiziko garrantzia dauka komunikazioan, eta baita elkarbizitzan ere”

**Bloga ere baduzu orain. Blogak irakurlearengandik gertuago jartzen zaitu. Lehen baino zailagoa zaizu testuarekiko leialtasuna gordetzea?**
*BERRIA*n ari zarenean badakizu zein publiko daukazun, eta publikoaz ari naiz, ez irakurleaz. Egia da blogarena ez dela gauza bera. Nik badakit *BERRIA*ren ildoarekin bat ez datorren jende asko sartzen dela blogera, nire lanak ezagutzen dituelako-edo, baina beste publiko hori ere ezagutzen dut, eta pentsa dezaket zergatik sartzen den.

**Uste duzu hitz asko esanahiz hustu direlako gaudela gauden moduan?**
[Zalantza keinua egin du]. Adibide bat jarriko dizut, joan zen astekoa. EAJk Espainiako Gobernuarekin hitzarmena sinatu zuenean, Euskal Telebistako platoan nengoen ni, Maialen Iriarte eta Jose Luis Lizundiarekin, informatiboetakoek albistea eman zain, gure elkarrizketa saioari ekiteko. Urkullu agertu zen kameren aurrean hizketan, eta platoan geundenok ez genion ezer ulertu. Urkulluk ez du euskaraz gaizki egiten, baina ez genion ezer ulertu. Norbaitek idatzi zion testu baten gainean ari zen, guztiz testu burokratiko baten gainean. Diskurtsoak egokitzen jakiteak sekulako garrantzia dauka. Gauza bera gertatzen da hitzekin. Irakeko gerraz ari direnean, eta “insurgente” hitza erabiltzen dutenean, zer esan nahi dute? Inork badaki? Hitzak berebiziko garrantzia dauka komunikazioan, eta ondorioz, baita elkarbizitzan ere.

**Idazle izateaz gainera, idazketarekin lotura zuzena duten hainbat lanbide izan dituzu. Idazle ez bazina, zer beste izango zinake?**
Irakasle edo kazetari, beharbada.

**Zure nerabezaroaz, fedeaz eta abertzaletasunaz ari zarenean zera diozu: “Euskaldunak ginen, euskaldunak ginela esateko premiarik gabe”. Susmoa daukat gaur egun ez ote den kontrakoa gertatzen.**
Esaldi hori gerra garaiko testuingurukoa da, eta orain, egoera beste bat da. Ni euskalduna nintzen, eta nire ustetan, naturaltasun osoz bizi nuen euskalduntasun hori. Ez nintzen konturatzen eskola eta gainerako guztia erdaraz nuela, jakina. Izan ere, ni bizi nintzen lekuan, Goiko Kalen, guardia zibilek ere euskaraz hitz egiten zuten, beste erremediorik ez zutelako. Beste aldetik, ni erregimenekoen bandokoa nintzen, nire aitak nazionalekin egin zuelako gerra. Gure aita irabazleen bandokoa zen, beraz, nahiz irabazlerik ez zen izan gerran. Euskalduntasunarena, baina, beste inork bezala errebindikatzen zuen gure aitak. Askripzio politikoa baino gehiago askripzio soziala zen lehen. Eta gaur, aldiz, identitatearen kontu hori asko lerrotu da politikaren gorabehera. Horretan galdu dugu naturaltasuna.

Antolatzaileak:

Babesleak:

# 10 ORDU, 6.000 ESAERA ZAHAR ETA 600 LAGUN!




Ez da erraza urriaren 8an Udaletxeko pleno-aretoan bizi izandakoa lerro batean esatea, baina, beharbada, hiru datu horiek balioko dute hangoa laburbiltzeko. 10 ordutan, etenik gabe, 600 lagun pasa ziren banan-banan mikrofono aurretik. Bakoitzak 10 euskal esaera zahar irakurri zituen; 6.000 esaera, guztira.



Alfredo Etxeberria, alkatea | A. Sorasuao, Elgoibarko Izarra | J.P. Uriguen, Euskara Batzordea | Idoia Elurbe, KUTXA | Patricia Navo, KUTXA | J. M. Astigarraga, DANOBAT | Alex Arrieta, DANOBAT



Bittori Zabala, EAJ | Ricardo Garate, EAJ | Maite Suarez, udal-langilea | Fco. Javier Nuñez, PP | Beñat Bilbao, ETXEPE | Jael Lizundia, HARITZ | Jon Lizarralde, HARITZ



Pello Arrieta | Unai Arrieta, kirolaria | T. Mujika, DULTZAINEROAK | Josu Mujika, TRISKA | Ainhoa Lendinez, URGAZI | Jokin Martinez, ONGARRI | L. Agirrebeña, Elgoibarko Izarra



G. Iriondo, udal-langilea | Pedro Mari Andonegi | Abel Iriondo, HARITZ | Pello Rubio, TXILLARRE | Elur Arrieta | E. Escudero, udal-langilea | Idoia Ulibarri, udal-langilea



J. Osoro, idazlea-kazetaria | A. Arriola, UDAL EUSKALTEGIA | M. Perez, UDAL EUSKALTEGIA | D. Juarez, UDAL EUSKALTEGIA | AM. Morcillo, UDAL EUSKALTEGIA | J.A Arriola, UDAL EUSKALTEGIA | JL. Azpillaga, UDAL EUSKALTEGIA



S.Gurrutxaga, UDAL EUSKALTEGIA | A. Epelde, UDAL EUSKALTEGIA | Iñaki Lazarobaster, EHNE | Paula Heras, AEK | Montse Arregi | Iban Urizar, SINUOSE | Asier Gurrutxaga, AEK



Montse Egaña, AEK | Berta Martinez, AEK | Alicia Gomez, AEK | Pilar Herrero, AEK | Olga Sousa, AEK | Paula Rey, AEK | Mila Tudanca, AEK



Maite Garcia, AEK | Leire Urbiola, AEK | Amaia Revert, AEK | M. P. Beristain, HAUR ESKOLA | Miren Mugerza, HAUR ESKOLA | R. M. Salegi, MAUSITXA | Cristina Garcia, IKASTOLA



G. Etxeberria, IKASTOLA | Irati Gurrutxaga, IKASTOLA | Ekaitz Atxa, IKASTOLA | Leire Urzainki, IKASTOLA | Unai Arrese, IKASTOLA | Aitor Gomez, IKASTOLA | Alaitz Egaña, IKASTOLA



M. Calzacorta, IKASTOLA | Egoitz Maiora, IKASTOLA | Ane Gallardo, IKASTOLA | A. Gurrutxaga, IKASTOLA | Iñigo Ayesta, IKASTOLA | Dani Vargas, IKASTOLA | I. Armendia, IKASTOLA



S. Larrañaga, IKASTOLA | Jon Conde, IKASTOLA | Jon Monje, IKASTOLA | A. Berruetabeña, IKASTOLA | Maddi Mendibil, IKASTOLA | Igor Loidi, IKASTOLA | Oier Ruiz, IKASTOLA



A. Mugerza, IKASTOLA | Elder Garate, IKASTOLA | Andrea Arregi , IKASTOLA | M. Astigarraga, IKASTOLA | Miren Lahoz, IKASTOLA | Iker Fernandez, IKASTOLA | Aitor Urain, IKASTOLA



Aitor Barrutia, IKASTOLA | Txaber Casado, IKASTOLA | Iñaki Gabilondo, IKASTOLA | A. De Marcos, IKASTOLA | Jon Ibarluzea, IKASTOLA | Unai Diez, IKASTOLA | Nerea Cabo, IKASTOLA



N. Leturiondo, IKASTOLA | Ainara Arriola, IKASTOLA | Mikel Agirreberia, IKASTOLA | Leire Meigosa, IKASTOLA | G. Calzacorta, IKASTOLA | Mikel Gurrutxaga, IKASTOLA | Josu Perez, IKASTOLA



Eba Zilbeti, IKASTOLA | Alberto Landa, IKASTOLA | A. Bilbatua, IKASTOLA | A. Agirregomezkorta, IKASTOLA | Amaia Arregi, IKASTOLA | Garazi Otegi, IKASTOLA | Idoia Hidalgo, IKASTOLA



Sara Beristain, IKASTOLA | Nora Armendia, IKASTOLA | Ane De la Arada, IKASTOLA | Itoitz Vitores, IKASTOLA | Gorane Ayesta, IKASTOLA | Ella Monje, IKASTOLA | Itziar Aldalur, IKASTOLA



Nerea Badiola, IKASTOLA | Xabi Lasa, IKASTOLA | Adrian Nijs, INSTITUTUA | Ane Urain, INSTITUTUA | Martin Segovia, INSTITUTUA | I. de Marcos, INSTITUTUA | Gorka Ojea, INSTITUTUA



Ivan Diaz, INSTITUTUA | E. Bilbatua, INSTITUTUA | N. Mancisidor, INSTITUTUA | J. L. Azpiri, INSTITUTUA | Alazne Martinez, INSTITUTUA | Maria Ferreiro, INSTITUTUA | Paul Diaz, INSTITUTUA



Mikel Salgado, INSTITUTUA | J. Ugarteburu, INSTITUTUA | Mª J. Aranburu, INSTITUTUA | J. I. Izagirre, INSTITUTUA | Karlos Ansola, INSTITUTUA | S. Mancisidor, INSTITUTUA | Imanol Lopez, INSTITUTUA



Pello Juaristi, INSTITUTUA | M. Larrañaga, INSTITUTUA | Ion Urdangarin, INSTITUTUA | J. Etxeberria, INSTITUTUA | Josetxu Garcia, INSTITUTUA | J. Larrañaga, INSTITUTUA | Aritz Cenzual, INSTITUTUA



Leire Garcia, INSTITUTUA | E. Santa Marta, INSTITUTUA | S. D. Victores, INSTITUTUA | A. Odriozola, INSTITUTUA | Ina Arriola, INSTITUTUA | U. Buenetxea, INSTITUTUA | Unai Castro, INSTITUTUA



Unai Zulaika, INSTITUTUA | Xeber Arriola, INSTITUTUA | Aritz Telleria, INSTITUTUA | Maider Perez, INSTITUTUA | Nerea Zubia, INSTITUTUA | E. Astigarraga, INSTITUTUA | Mikel Marcos, INSTITUTUA



Garazi Sarasua, INSTITUTUA | Peru Elorza, INSTITUTUA | P. Fernandez, INSTITUTUA | Urtzi Egaña, INSTITUTUA | Julen Urain, INSTITUTUA | Josu Atxa, INSTITUTUA | Julen Ibarluzea, INSTITUTUA



I. Garmendia, INSTITUTUA | L. Aizpitarte, INSTITUTUA | Maite Bellar, INSTITUTUA | Amaia Beiza, INSTITUTUA | K. Arizmendiarrieta, INSTITUTUA | L. Arrillaga, INSTITUTUA | Ane Iñiguez, INSTITUTUA



A. Ansorregi, INSTITUTUA | Irati Ciaran, INSTITUTUA | Leire Sorazu, INSTITUTUA | Alba Gonzalez, INSTITUTUA | M. Usabiaga, GAZTELEKUA | Andrea Arrieta, INSTITUTUA | Tamara Molina, INSTITUTUA



Maria Leal, INSTITUTUA | Nagore Urkiza, INSTITUTUA | Alberto Loiola, INSTITUTUA | I. Beristain, INSTITUTUA | Aitor Asenjo, INSTITUTUA | V. Moreno, INSTITUTUA | Helefi Marques, INSTITUTUA



Aitor Santaren, INSTITUTUA | Iker Calvo, INSTITUTUA | Maddi Etxabe, INSTITUTUA | Ainhoa Urbizu, INSTITUTUA | Julen Diaz, INSTITUTUA | I. Zubiaurre, INSTITUTUA | Ane Rubio, INSTITUTUA



Victor Garcia, INSTITUTUA | N. Urain, INSTITUTUA | Ibai Konde, INSTITUTUA | A.Santos De Silva, INSTITUTUA | A. Hernandez, INSTITUTUA | A. Cuende, INSTITUTUA | L. Hernandez, INSTITUTUA



J. Garate, INSTITUTUA | Julen Vigara, INSTITUTUA | I. Arrizabalaga, INSTITUTUA | Ander Ansola, INSTITUTUA | J. C. Arteaga, INSTITUTUA | Iker Alonso, INSTITUTUA | Ane Arakistain, INSTITUTUA



Zuriñe Conde, INSTITUTUA | A. Garmendia, INSTITUTUA | Ane Gonzalez, INSTITUTUA | Amaia Loiola, INSTITUTUA | Irati Mendikute, INSTITUTUA | A. Oñederra, INSTITUTUA | Unai Ortuoste, INSTITUTUA



Araceli Pays, INSTITUTUA | Mikel Uriguen, INSTITUTUA | Miren Viñe, INSTITUTUA | Iker Zapata, INSTITUTUA | Haritz Cerezo, INSTITUTUA | Iratxe Egaña, INSTITUTUA | J. Espinosa, INSTITUTUA



I.Garate, INSTITUTUA | A. Larrañaga, INSTITUTUA | Ioritz Lelariati, INSTITUTUA | Eneritz Lopez, INSTITUTUA | J. Manteca, INSTITUTUA | A. Odriozola, INSTITUTUA | Garazi Osoro, INSTITUTUA



Olaia Quintas, INSTITUTUA | P. Rescalvo, INSTITUTUA | E. Rodriguez, INSTITUTUA | A.Uriguen, INSTITUTUA | Mikel Zuñiga, INSTITUTUA | Alazne Perez, INSTITUTUA | Xabier Salegi, INSTITUTUA



A. Puyadena, INSTITUTUA | A. Arrizabalaga, Elgoibarko Izarra | Patxi Zabaleta, BIKUSTIK | A. Guillo, EXPRESION SONORA | J. Gurrutxaga, JON&SUGRAMAS | Nekane Aranburu | Joserra Ezenarro



M. L. Osoro, HAUR ESKOLA | Koldo Leibar | E. Baskaran, trikitilaria | I. Urbieta, udal-langilea | Iñaki Raigoso, udal-langilea | A. Barrenetxea, udal-langilea | Itziar Gurrutxaga, kirolaria



Ane Goikoetxea, TERTULIAK | M. Astigarraga, HARITZ | Enrike Larrañaga | Luis Mari Iriondo | G. Osa, ARRATE IRRATIA | J. M.Irazusta, AMETZAGAINA | Josean Gomez, udal-langilea



M. Arozena, LIBURUTEGIA | Miriam Iriondo, TXANKAKUA | MªJ. Estibariz, TXANKAKUA | MªJ. Otaegi, TXANKAKUA | Edurne Bilbao, IMH | Ilasio Sudupe, IMH | Roberto Aitzemeka, IMH



Leire Alberdi, IMH | Elder Iriondo, IMH | Kristian Sanz, IMH | Ane Iriondo, IMH | Itziar Egiguren, IMH | Itziar Irazabalbeitia, IMH | Mila Arano, BARREN azoka



A. Rubio, BARREN azoka | A. Bollar, BARREN azoka | M. Astigarraga, BARREN azoka | Jon Eugi, idazlea | Miren Pagoaga, HAIZEA | M.J. Lazkano, HAIZEA | J. A. Osoro, MUSIKA BANDA



K. Galdona, MUSIKA BANDA · A. Arriola, MUSIKA BANDA · B. Alberdi, MUSIKA BANDA · Blanca Salegi, MISKI · K. Elortza, BADIHARDUGU · J. M. Elexpuru, BADIHARDUGU · E. Etxeberria, BADIHARDUGU

I. Azpillueta, UDAL EUSKALTEGIA · Z. Palacios, UDAL EUSKALTEGIA · S. Gabiola, UDAL EUSKALTEGIA · Kiribil, Elgoibarko Izarra · K. Zuatzubiskar, udal-langilea · Lizarluzea, ATXUTXIAMAIKA · Mireia Jauregui

Aitor Argarate · Arrate Zubia · A.Etxaniz, DEBEMEN · Amaia Esnaola, DEBEMEN · Irune Alberdi, DEBEMEN · G. Agirregomezkorta, DEBEMEN · I. Galarraga, udal-langilea

Rosa Aldazabal, PARROKIA · M. Garate, Garate familia · A. Garate, Garate familia · Edurne Sanchez, AEK · Mirari Aranburu, AEK · Zigor Diez, MINTXETA A.T. · Ainhoa Dorado, LUDOTEKA

Maria Cid, LUDOTEKA · Asier Orbea, BARREN · H. Fontecilla, Herri Eskola · Markel Sanchez, Herri Eskola · Irati Marcos, Herri Eskola · G. Arnedo, Herri Eskola · June Beristain, Herri Eskola

Aroa Carril, Herri Eskola · A. Garcia-Abad, Herri Eskola · Olatz Aitzarreka, Herri Eskola · Nayeli Mendoza, Herri Eskola · Maider Zapata, Herri Eskola · Ibon Makazaga, Herri Eskola · Aner Telleria, Herri Eskola

A. Rodriguez, Herri Eskola · Ibon Alonso, Herri Eskola · Jon Gartzia, Herri Eskola · Paul Larios, Herri Eskola · Nerea Sasiain, Herri Eskola · Aitana Ortega, Herri Eskola · O. Elizburu, Herri Eskola

Asier Goralalde, Herri Eskola · Zorione Cuesta, Herri Eskola · Naroa Aizpurua, Herri Eskola · Ane Iriondo, Herri Eskola · Meliza Villalba, Herri Eskola · Gorka Luna, Herri Eskola · Nahia Aranbarri, Herri Eskola

Ianire Izagirre, Herri Eskola · Jon Vela, Herri Eskola · Irene Makazaga, Herri Eskola · A. Galindo, Herri Eskola · Irala Agirre, Herri Eskola · Aroa Hidalgo, Herri Eskola · O. Lauzirika, Herri Eskola

Aitor Iranzo, Herri Eskola · O. Astigarraga, Herri Eskola · A. Elizagirre, Herri Eskola · Nerea Perales, Herri Eskola · Maialen Loiola, Herri Eskola · H. Sanchez, Herri Eskola · Danel Mugarza, Herri Eskola

Maria Arrieta, Herri Eskola · Ainhoa Ugalde, Herri Eskola · Nerea Martinez, Herri Eskola · M. El Hachmi, Herri Eskola · Josu Palacios, Herri Eskola · Maider Perales, Herri Eskola · Saioa Marcos, Herri Eskola



Koro Sabando, Herri Eskola | N. Rodriguez, Herri Eskola | Ion Iriondo, Herri Eskola | Ion Martinez, Herri Eskola | Ohiane Gartzia, Herri Eskola | Leire Morales, Herri Eskola | Ander Mugerza, Herri Eskola



Edu Uribe, Herri Eskola | N. Gorostiza, Herri Eskola | A. Zubizarreta, Herri Eskola | Iñaki Otegi, Herri Eskola | Rakel Agirre, Herri Eskola | J. K. Zuñiga, Herri Eskola | Abel Irizar



June Loidi, IKASTOLA | Iker Casado, IKASTOLA | J. Astigarraga, IKASTOLA | Iñigo Mugerza, IKASTOLA | Leire Burgaña, IKASTOLA | Sarai Sanchez, IKASTOLA | Leire Gabiola, IKASTOLA



Julen Etxeberria, IKASTOLA | Beñat Garate, IKASTOLA | Alaitz Loiola, IKASTOLA | M. K. Intxausti, IKASTOLA | Nora Mugerza, IKASTOLA | O. Garcia- Abad, IKASTOLA | Sofia Arregi, IKASTOLA



Aroa Etxeberria, IKASTOLA | M. Elkoro-iribe, IKASTOLA | Paulo Larreategi, IKASTOLA | Aitor Iriondo, IKASTOLA | D. Alvarez de Arcaya, IKASTOLA | Oier Eguren, IKASTOLA | Eñaut Igartua, IKASTOLA



Eneko Larruzkain, IKASTOLA | Ainhoa Leyaristi, IKASTOLA | Julen Guillo, IKASTOLA | Irati Maiora, IKASTOLA | M. Ruiz de Gauna, IKASTOLA | Alain Zuilaka, IKASTOLA | M. Aizpitarte, IKASTOLA



Asier Urain, IKASTOLA | Alaitz Almortza, IKASTOLA | M. San Andres, IKASTOLA | Oier Agirrezabala, IKASTOLA | Josu Burgaña, IKASTOLA | Kontxi Prado, IKASTOLA | Elsa Astigarraga, IKASTOLA



Irati Intxausti, IKASTOLA | Javier del Rey, IKASTOLA | Imanol Albizu, IKASTOLA | Marc Larrañaga, IKASTOLA | N. Agirregomezkorta, IKASTOLA | Mikel Etxaniz, IKASTOLA | Ane Almenara, IKASTOLA



A.Beristain, IKASTOLA | Iera Hernandez, IKASTOLA | Jon Agote, IKASTOLA | Iker Lauzirika, IKASTOLA | Aitor Kortazar, IKASTOLA | T. Fdez-Campinun, IKASTOLA | Iban Orive, IKASTOLA



Ander Aranzabal, IKASTOLA | Uxue Mancizidor, IKASTOLA | Gorka Melgosa, IKASTOLA | A. Beraza, IKASTOLA | Jon Ansola, IKASTOLA | Ana Zubiaurre, IKASTOLA | J. Rodriguez, IKASTOLA



E. Barruetabeña, IKASTOLA | Nerea Bastida, IKASTOLA | Amaia Iriondo, IKASTOLA | Ibon Arriola | Maritxu Loiola, AUBIXA | F. Loiola, C.D. ELGOIBAR | R. Barrenetxea, DANOBAT



Koldo Ugaldea, DANOBAT | I. Mugerza, ESTARTA | J. Gernaberrena, ELGOIJAIOTZA | Ainara Argoitia, BARREN | J. Salegi, LAGUN TALDEA | Yulen Zabaleta, marrazkilaria | Justo Arriola, OKIL BELTZA



I. Trenor, Elgoibarko Izarra | Aitor Rosario, AHT EZ | N. Fuente, NABARZALEAK | Cinthya Pazmiño, HARITZ | Mikel Olaizola, HARITZ | R. Mujika, KIROL PATRONATUA | E. Lizarriturri, KIROL PATRONATUA



Maribu Egaña, AEK | Pedro Azpiazu, EGUR | Sorkunde Juaristi | Lorea Basalo | Aitor Olasolo, BIG BAND | A. F. de Jauregi, BIG BAND | Luis Arrieta



Maider Etxaniz | Arantza Apraiz, TERTULIAK | Juan Jose Rumayor | Miren Arrate Arrieta, EA | I. Odriozola, EZKER ABERTZALEA | I. Ibabe, EZKER ABERTZALEA | P. Mendizabal, EZKER ABERTZALEA



G. Osoro, EZKER ABERTZALEA | I. Bengoetxea, EZKER ABERTZALEA | J. C. Marcos, AEK | Patxi Gomez, AEK | Elsa Sanchez | Maite Loiola | Ainhoa Andonegi, BARREN



Txotxe Urrutia, EKEKEI | B. Muguerza, SAN LAZARO | Izaskun Soraluze, ARALAR | Izaskun Belategi | Jose Gurrutxaga, kirolaria | Iñaki Agirre, ONGARRI zine-kluba | Alberto Iriondo, EAJ



David Mekolalde, GARE | Marga Zapata, TXUSKO | Juan Mari Eguren | Carlos Ayesta, SANLO | Ainhoa Usobiaga, SANLO | Igor Lizarralde, SANLO | Lorea Gabilondo, SANLO



Cesar Arriola, SANLO | Garazi Ayesta, SANLO | Junkal Txurruka | Jon Sasiain | J. Rodriguez, MAUXITXA | Alfonso Eugi, AEK | Amaia Larrañaga, AEK



Ana Casquero, AEK | E. Eguren, EGUREN taldea | Zuhaitz Gurrutxaga, kirolaria | Pako Iriondo | Amaia Jaio | Angelo Iriondo | Jose Luis Alkorta



Maialen Ameda, KIRIBIL | Arantza Arrieta | Eli Osoro | Nieves Loiola, PARROKIA | Iñigo Csarsolo, EA | Iñigo Astigarraga, ZARTA | Nerea Lodoso, udal-langilea



Iñaki Iriondo, EAJ | Maite Barandiaran | Jose Luis Odria, KONDIA | Amaia Ezenarro | Joxe Erzibengoa, LA SALLE | I Agirregomezkorta, udal-langilea | N. Martin, ATXUTXIAMAIKA



Ane Astigarraga, HARITZ
G. Argarate, ARNALDO ASKATU
Haritz Arrieta, AKUILLU
C. Vicente, LUDOTEKA
Lore Bereziartua
Jairo Berbel, argazkilaria
J. Garmendia, MUSIKA ESKOLA



A. Iriondo, MUSIKA ESKOLA
A.Arrizabalaga, MUSIKA ESKOLA
M. J. Zubiaurre, MUSIKA ESKOLA
Jon Gorrikabeitia, 10 BAI
Ander Aranzadi, 10 BAI
Agurtzane Garzia
Aitor Zabala, DIARI VASCO



Maite Rementeria
Ana Artetxe, DANOBAT
Benito Aranbarri, DANOBAT
Jon Mugartegi, DANOBAT
Patxi Etxeberria, DANOBAT
Aitor Zubiaurre, DANOBAT
A.Fernandez, DANOBAT



Deñe Zabalo, DANOBAT
Oier Goikoetxea, ZUBIBAI
Josean Agirre, IGERIKETA
Nerea Juaristi, IGERIKETA
Marian Arriola, IGERIKETA
Edurne Lasa, TAUPADA
J. M. Larrañaga, TAUPADA



Nerea Gil, TAUPADA
Aitor Gisasola, TAUPADA
Enkarni Migeles, TAUPADA
J. M. Elustondo, LAGUNAK
Igor Txurruka, LAGUNAK
Aitor Alberdi, LAGUNAK
Asier Lizarralde, LAGUNAK



Iker Odria, LAGUNAK
A. Arrillaga, LAGUNAK
M. Ariznabarreta, LAGUNAK
Ioritz Idigoras, LAGUNAK
J. Arrizabalaga, auzo-alkatea
A. Mendibil, GAZTE ASANBLADA
A. Izagirre, GAZTE ASANBLADA



A. Izagirre, GAZTE ASANBLADA
I. Alguacil, GAZTE ASANBLADA
Jon Arrieta, HARITZ
Jon Barandiaran
Juan Luis Mugertza, idazlea
A. Beristain, trikitilaria
Maria Jesus Astigarraga



Iban Maruri, ARNIZKAR
Arkaitz Irureta, ARNIZKAR
Jon Urbieta, MORKAIKO
A. Agirregomezkorta, MORKAIKO
Iker Leonardo, MORKAIKO
M. San Martin, MORKAIKO
Eñaut Izagirre, MORKAIKO



Abel Arriaga, MORKAIKO
Jesus Mari Makazaga
Joseba Konde
Joseba Osoro, ARALAR
A. Cardaba, GURUTZE GORRIA
M. Anakabe, GURUTZE GORRIA
Felix Etxeberria



Itziar Ajuria, Garate familia
Andres Alberdi
A. Ugarteburu, Garate familia
Nicolas Garate, Garate familia
G. Cacigas, Garate familia
N. Lendinez, Garate familia
G. Bengoa, Garate familia



Ana Garate, Garate familia
K. Katxo, Gotzonen laguna
M.C. Garate, Garate familia
Marian Garate, Garate familia
Rosa Mª Mata, Garate familia
Olatz Garate, Garate familia
J. Garate, Garate familia

**Autopistarako sarreran asfaltoa hondatuta dago:** “Autopistarako sarreran bidea oso egoera txarrean dago. Asfaltoa zuloz beteta dago, eta zulo horiek gero eta handiagoak dira, gainera. Auto asko ibiltzen da egunero ingurune horretan, eta nik uste dut konpondu egin behar dela. Ez dakit Udalaren kontua izango den bide hori konpontzea, baina seguru zerbait egin ahal izango duela. Foru Aldundiaren ardura izango da akaso, baina Elgoibarko Udalak eskaera egin dezake. Zergak denok ordaintzen ditugu, eta errepide duinak merezi ditugu”.



**Trafiko isunak garestiegiak dira:** “Gehiegizkoa iruditzen zait trafiko isunen gainean Udalak hartu duen neurria. Badirudi herritarroi isunak jarriz gainditu nahi duela Udalak krisialdia. Herritarron poltsikoek ere igarri dute krisia, eta hori ez da bidea. Jendeak ondo aparkatu behar du, argi dago, baina horretarako aparkalekuak egin behar dira, ez isunak jarri. Elgoibarren aparkaleku arazo larria daukagu, eta hori konpondu behar da”.









ESKERTZA

## CASILDA CRIADO SANCHEZ

2010eko urriaren 17an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





ESKERTZA

## MILAGROS ETXEANDIA ZABALA

2010eko urriaren 19an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# Saturrarango kartzelan preso egon ziren emakumeei buruzko dokumentala eskainiko du Ongarrik eguenean

## Barixakuan memoria historikoaren autobusa iritsiko da Elgoibarrera

Datorren eguenean *Debekatuta dago oroitzea* dokumentala eskainiko du Ongarri zineklubak, Elgoibar1936 taldearekin elkarlanean. 1937. urtetik 1944ra bitartean Mutrikuko Saturrarango kartzelan preso egon ziren emakumeei buruzko dokumentala da. Saturrarango presoak baldintza latzetan bizitzera behartzeaz gain, haietako batzuei semeak edo alabak kendu zizkieten frankistek, eta hori guztia jasotzen du dokumentalak. Josu Martinez eta Txaber Larreategi zuzendariek Saturraranen preso egon ziren emakumeen lekukotasunak jaso dituzte. 21:30ean hasiko da filma, Herriko Antzokian.

Barixakuan, bestalde, memoria historikoaren autobusa iritsiko da Elgoibarrera. Memoria historikoa berreskuratzeko asmoz jarri zuten martxan autobusa, eta herriz herri dabil frankistek hildako herritarrak gogora ekartzen. 18:00etatik 20:00etara izango da Elgoibarren, Kultur Etxe aurrean.

### Lau film, azaroan

Ongarri zineklubak lau film emango ditu azaroan, *Emakumeen Erretratuak* zikloaren barruan. Aipatutako dokumentalarekin batera, *El Silencio de Lorna; Ella, una joven china* eta *Mujeres del Cairo* pelikulak emango dituzte hurrenez hurren, eguenetan, 21:30etik aurrera.






# Anarik itxiko du datorren eguaztenean ‘Euskara ala Ezkara’ hitzaldi zikloa

## Hitza eta kantua uztartuko ditu abeslari azkoitiarrak

Anari abeslari eta konpositoreak *Kantuaren gainean... eta azpian* izenburuko hitzaldia eskainiko du datorren eguaztenean. Hitzaldi-kontzertua izango da, eta berbak eta musika uztartuko ditu. Anari Azkoitian jaio zen 1971n, eta 1997an ekin zion musikari ibilbideari. 19:00etan hasiko da hitzaldia, eta Jon Gurrutxaga musikari elgoibartarrak egingo ditu aurkezpen lanak. Anariren saioak itxiko du Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatutako ‘Euskara ala Ezkara’ zikloa.



## Haragizko brotxeta eta txistorra pintxoak banatuko ditu biharko ferian Elgoibarko Izarrak

Elgoibarko Izarrak hartuko du urriko azken zapatuko ferian egon ohi den txosnaren ardura, eta 10:30etik aurrera haragizko brotxeta eta txistorra pintxoak salduko ditu euro batean. Atxutxiamaikak, bestalde, umeentzako jolas eta tailerrak prestatuko ditu. Horrez gain, Elgoibarko baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai Nafarroa Plazan, eta ganadu erakusketa ere izango da Plaza Txikian. 12:00etan Kale Kantariak irtengo dira kaleak kantuz girotzera.

## 2011ko egutegirako erretratuak aukeratu dituzte

2011ko egutegiak baditu dagoeneko hilabete bakoitzerako erretratuak. 29 herritarrek hartu dute parte, eta 78 argazki aurkeztu dituzte guztira. Hirugarren urtez antolatu dute Udalak eta Ongarri argazkilari elkarteak egutegirako argazki lehiaketa, eta epaimahaiak hamabi aukeratu ditu, hilabete bakoitzerako bana. Saritutako argazki bakoitzaren jabeak 60 euroko saria jaso du. Ondorengoak izan dira irabazleak:




Urtarrila: Jose Inazio Izagirre - Otsaila: Jesus Ladron
Martxoa: Alberto Fernandez - Apirila: Andoni Etxeberria
Maiatza: Andoni Segundo - Ekaina: Eulogio Mancebo
Uztaila: Angel Mari Vicario - Abuztua: Mari Jose Estibaritz
Iraila: Eulogio Mancebo - Urria: Miren Gurutze
Azaroa: Imanol Cerdeira - Abendua: Andoni Etxeberria

### ‘Xabinaitor’ antzerkia, azaroaren 5ean

Gorringo antzerki taldeak *Xabinaitor* antzezlana taularatuko du datorren barixakuan, azaroaren 5ean, Herriko Antzokian. Patxi Gallegok komikirako sortutako super heroia antzerkira eraman du Gorringo taldeak, eta Anjel Alkain aktorea izango da protagonista nagusia. Sabinoren istorioa kontatzen du antzezlanak. Super botereak lortuko dituen gazte bat da Sabino, eta neska poxpolinei laguntzeko erabiliko du botere hori, sexu faboreen truke. 20:30ean hasiko da ikuskizuna.

### Euskara errefortzuetan izena emateko epea zabalik

Bederatzigarren urtez jarraian Euskara Errefortzuak egitasmoa jarri du martxan Elgoibarko Izarrak, Udalaren laguntzaz. Aurten, baina, izen berria estreinatu dute: Berbazulo. Helburuek eta izaerak, ordea, bere horretan diraute: euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzten haurrei, eta euskaraz ez dakiten haur eta gaztetxoei laguntzea. 5 eta 9 urte bitarteko 23 haur daude egitasmoan, baina nahi duenak ikasturtean zehar ere eman dezake izena, 943 741 626 telefono zenbakira deituta.

### Marrazketa artistikoari buruzko ikastaroa

Egur arte tailerrak marrazketa artistikoari buruzko ikastaroa antolatu du. 30 orduko ikastaroa izango da, azaroaren 2tik 25era arte. Interesatuek 666 557 538 telefonoan eman dezakete izena.

### Burgosera irteera antolatu dute azaroaren 18rako

Jubilatuen egoitzak Burgosera irteera antolatu du azaroaren 18rako. Egoitzako bazkide direnek 35 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 38 euro. Prezio horretan autobusa, hamaiketakoa eta bazkaria sartzen dira. Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko jubilatuen egoitzara joan behar da.

# Ataungo hiru auzoetako krosa irabazi eta errekorra ezarri du Maite Maiorak

## 35 segundotan ondu du emakumezkoen marka

Ataungo hiru auzoetako korrikaldia irabazi eta emakumezkoen marka 35 segundotan ondu du Maite Maiora atleta mendaroarrak. Goierriko lasterketa herrikoien artean beteranoetarikoa da proba hau. Aurten, 215 lagunek parte hartu dute, inoizko gehien, eta tartean, Elgoibartik eta Mendarotik joandako bost lagunek parte hartu zuten: Miguel Angel Urkizak, Juan Antonio Sotok, Maite Maiora berak, Asier Arrietak eta Aitor Etxeberriak.

Ataungo hiru auzoetan barrena aritu ziren korrika: San Martin, San Gregorio eta Aia; guztira 17,3 kilometroko ibilbidea. Gizonezkoetan Juan Carlos Valdivieso beasaindarrak lortu zuen garaipena (58:58). Emakumezkoetan, Maite Maiora izan zen bizkorrena. Hona hemen gure ginerako ordezkarien denborak:

| | |
|---|---|
| 48 Miguel Angel Urkiza | 1:09:20 |
| 50 Juan Antonio Soto | 1:09:24 |
| 52 Asier Arrieta | 1:09:26 |
| 152 Aitor Etxeberria | 1:18:53 |



## Denboraldi amaiera, lagun giroan



Denboraldi amaierako irteera egin zuten zapatuan Mendaroko Txirrindulari Elkartekoek. Hamazazpi lagun irten ziren bizikletan –argazkian bat falta da–, eta ondoren, Landa jatetxean bazkaldu zuten. Lagun giroan amaitu dute denboraldia, eta hasiak dira dagoeneko urtarriletik aurrera egingo dituzten irteerak prestatzen.

### Behobia-Donostia lasterketarako autobusa

Urtero legez, Behobia-Donostia lasterketara joateko autobusa antolatu dute Elgoibartik. Azaroaren 14an jokatuko da herri proba entzutetsua, eta 8:30ean irtengo da autobusa, King Kong-eko autobus geltokitik. Izen-emateak Olaizaga kiroldegian egingo dira, eta interesatuek azaroaren 12a arteko epea dute horretarako. Azaroaren 12an, 12:00etan itxiko da izena emateko epea. Txartelak 12,5 euro balioko ditu patronatuko bazkide direnentzako, eta hiru euro gehiago, 15'5 euro, patronatuko bazkide ez direnentzako.

### Mendiko argazki eta bideo lehiaketa antolatu dute

Urtero legez, mendiko argazki lehiaketa antolatu du Morkaikok, mendizaletasuna eta argazkilaritzarako afizioa uztartuz. Aurten, gainera, eta berrikuntza moduan, bideo lehiaketa ere izango dela jakinarazi dute antolatzaileek. Argazkiak aurten egidankoak izan beharko dute derrigor, baina bideo lehiaketara aurtengo nahiz aurreko urteetako bideoak ere aurkeztu ahal izango dira. Hori bai, gehienez hamar minutuko bideoak izan beharko dira. Argazkiak nahiz bideoak azaroaren 25a baino lehen aurkeztu beharko dira, Morkaikoren egoitzan edota e-postaz (morkaiko@morkaiko.net). Argazkiak eta bideoak noiz eta non ateratakoak diren zehaztu beharko da, eta izenburua, egilearen izen-abizenak, eta kontakturako telefonoa gehitu beharko zaizkio informazio horri.

Argazki onena ehun eurorekin sarituko dute, eta 75 eurorekin ikusleen argazki gustukoena. Bideo onenak, berriz, egun euro jasoko ditu, eta ikusleen bideo gustukoenak 75 euro. Argazki lehiaketan parte hartzeko ezinbestekoa da Morkaikoko bazkide izatea, eta Ongarri Kultur Elkartekoek osatuko dute epaimahaia.

# Pala txapelketa antolatu dute 10 baik eta Lagunak pilota eskolak elkarlanean

## Azaroaren 3ra arteko epea dago izena emateko

Plaza Handian jokatu zen esku pilota txapelketa arrakastatsuaren ostean, lagunarteko estreinako pala txapelketa antolatu dute 10 bai taldeak eta Lagunak pilota eskolak elkarlanean. Azaroan hasiko da pala txapelketa, eta ondo bidean, Gabonen bueltan amaituko da. Izena emateko epea, baina, zabalik dago dagoeneko. Interesatuek azaroaren 3a baino lehen eman beharko dute izena, Lanbroa tabernan. Bikote bakoitzak hogei euro ordaindu beharko ditu. Partida guztiak ikastolako frontoian jokatuko dira.

Izena ematen duten guztiekin taldeak osatu eta partiden egutegia zehazteko bilera egiteko asmoa dute antolatzaileek. Bilera hori azaroaren 4an izango da Basarte Elkartean, 20:00etan. Informazio gehiagorako honako bi telefono zenbaki hauek jarri dituzte antolatzaileek eskura: 626 686 206 (Karmel) edo 609 829 928 (Iosu).

### Bertso afaria, azaroaren 19an

Jakina da 10 bai taldekoen aldarrikapena: Elgoibarren hamar koadroko frontoia egitea. Horretarako, eta aldarrikapen hori entzunarazteko, "ganorazko frontoi baten aldeko" bertso afaria antolatu dute, azaroaren 19rako. Baltzola anaien trikiti doinuek lagunduta, Plaza Handian hasiko dute triki poteoa arratsaldean, eta 21:00etan batuko dira Basarte elkartean, bertso afarirako. Uxue Alberdi, Aitzol Barandiaran eta Mikel Olaizola arituko dira bertsotan. Antolatzaileek ehun lagunentzako lekua dagoela jakinarazi dute, eta dagoeneko jarri dituzte salgai txartelak Jai-Alai, Gorbea, Lanbroa eta Toletxe tabernetan, 25 eurotan.

# Euskaldiko Taldekako Judo Txapelketa irabazi du Egoitz Mora elgoibartarrak, Gipuzkoako taldearekin



Euskadiko Taldekako Judo Txapelketa jokatu zen zapatuan Laudion, eta herrialde bakoitzeko onenek parte hartu zuten han. Gipuzkoako taldean parte hartu zuen Egoitz Mora elgoibartarrak, 90 kilotik gorakoetan, eta uste baino errazago lortu zuen txapela janztea. Zapatukoarekin hogeitik gora dira elgoibartar gazte honek irabazitako txapelketak. Argazkian, taldekideekin ageri da Egoitz Mora (Goian, ezkerretik hasita lehenengoa).

## EMAITZAK

**FUTBOLA**
Amurrio 1 – Haundi 1 (3. maila)
Elgoibar 2 – Antzuola 3 (Pref.)
Aloña Mendi 2 – Elgoibar 0 (Ohorezko jub.)
Elgoibar 9 – Soraluze 0 (Kad. A)
Elgoibar 1 – Lagun Onak 3 (Jub.)
Beasain 4 – Elgoibar 0 (Txiki)
Arrasate 8 – Elgoibar 1 (Aleb.)

**ESKU PILOTA**
Gipuzkoako Txapelketa
Lagunak 22 – Intza 18 (1. mailako nag.)
Goierri 22 – Lagunak 16 (1. mailako jub.)
Intza 18 – Lagunak 22 (2. mailako kad.)
Pala
Lagunak 24 – Alde Zaharra 25 (3. mailako nag.)
Altzolatarrak 25 – Lagunak 22 (3. mailako nag.)

**ARETO FUTBOLA**
Concepto Createch 6 – Elorrioko 0 (Nazional A)
Cafeteria King-Kong 3 – Zarautz 1 (Nazional B)

**ESKUBALOIA**
Egia 35 – Alkorta Elg. 34 (Kad. nesk.)
San Adrian 23 – Tecnifuelle 22 (Sen. nesk.)
Gurpo Eibar Elg. 27 – Aiala 32 (Jub. nesk.)
Ordizia 34 – Beristain Elg. 31 (Jub. mut.)
Urola 38 – Txarriduna Elg. 26 (Kad. mut.)
Ereintza 11– IMH Elg. 18 (Kad. nesk.)
Lauko Elg. 22 – Aiala 24 (Kad. nesk.)
Aterpe Elg. 15 – Bankoa Elg. 33 (Inf. mut.)
Pulpo 3– Astigarraga Elg. 27 (Inf. nesk.)
Ikus Elg. 12 – Aloña Mendi 27 (Inf. nesk.)

## AGENDA

**FUTBOLA** (Mintxetan)
Zapatua, 30
11:30 Elgoibar – Eibar (Inf. txiki)
16:30 Haundi – Santurtzi (3. maila)
Domeka, 31
12:00 Elgoibar – Urki (Kad. B)
16:30 Elgoibar – Urola (Ohorezko jub.)

**ESKUBALOIA** (Kiroldegian)
Zapatua, 30
9:45 Astigarraga Elg. – Ikus Elg. (Inf. nesk.)
11:00 IMH Elg. – Aiala (Kad. nesk.)
12:30 Txarriduna Elg. – Ordizia (Kad. mut.)
16:00 Alkorta Elg. – Pulpo (Sen. mut.)
17:30 Beristain Elg. – Pulpo (Jub. mut.)

**ARETO FUTBOLA** (Kiroldegian)
Domeka, 31
10:00 Cafeteria King-Kong – Erain (Nazional B)

**ESKU PILOTA**
Barixakua, 29
21:45 Lagunak – Bergara (2. mailako Kad.)
22:30 Lagunak – Beloki (3. mailako nag.)

## LANA

### ESKAERA

• Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketak egiteko. ☎ 663 786 976
• Gizon gaztea txofer lanak egiteko prest. 3.500 kilora arteko ibilgailuak gidatzeko baimena. ☎ 650 538 274
• Emakumea eskaintzen da egunez zein gauez gaixoak edo umeak zaintzeko. ☎ 680 223 378
• Gizona eskaintzen da baserriko lanetarako eta zerbitzari edo sukalde laguntzaile lanetarako.
☎ 686 077 316
• Neska eskaintzen da 17:00etatik aurrera edo asteburuetan lan egiteko. ☎ 646 821 678
• Mutila edozein lanetarako prest.
☎ 646 260 220
• Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketak edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko. ☎ 699 609 190
• Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka.
☎ 626 490 986
• Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo umeak edo nagusiak zaintzeko.
☎ 686 578 228
• Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 12:00etatik aurrera.
☎ 690 202 181
• Neska gaztea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka.
☎ 686 234 612
• Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka.
☎ 669 311 385
• Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka.
☎ 636 362 251
• Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko.
☎ 696 246 962
• Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo umeak edo nagusiak zaintzeko.
☎ 648 603 029
• Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko.
☎ 645 461 600 / 943 743 638
• Neska garbiketa lanak egin edo umeak edo nagusiak zaintzeko prest.
☎ 686 234 612
• Neska gaztea umeak zaintzeko prest.
☎ 650 280 670

### ESKAINTZA

• Zerbitzaria behar da asteburuetan tabernan lan egiteko. Astean hamabost ordu.
☎ 615 761 463

## ETXEBIZITZAK

### ALOKAIRUA ETA SALMENTA

• Pisua salgai Mendaron, Azpilgoetan. $75m^2$. Igogailuarekin eta trastelekuarekin. Eguzkitsua eta dena kanpoaldera begira. 170.000 euro.
☎ 655 746 480
• Etxebizitza alokatzen dut Ubitarten. Bi logela, sukalde-egongela handia eta berogailua. Egoera onean.
☎ 943 742 442

## AUTOAK ETA GARAJEAK

• Garajea alokatzen dut San Roke 5ean.
☎ 943 741 837
• Garaje irekia alokatzen dut Arregitorre 8an.
☎ 685 796 713

## PARTIKULARRAK

• DBHko matematikako klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. Esperientziaduna. ☎ 943 744 206
• Magisteritzako ikasleak klase partikularrak emango lizkieke LHko umeei.
☎ 665 759 849
• Ingelesa ikasteko partikularrak ematen ditut.
☎ 679 113 446
• DBHko ikasleei klase partikularrak emateko pertsona behar da.
☎ 652 763 264

## BESTELAKOAK

• BMW markako lau llanta salgai. 16 pulgadatakoak. Oso egoera onean. 400 euro. BMW serie 3 autorako osagarriak opari, 2001ekoak. Bi klimatizagailu panel, bi Blaupunkt irrati-kasete, aurrealdeko sarea.
☎ 664 203 406
• Ordenagailua salgai. Pentium 4, 3000, 1GB. Windows XP, DVD grabagailua, 80GBko disko gogorra, arratoia, teklatua, eta Epson inprimagailua. 250 euro.
☎ 628 581 900





• Zorionak, **Jakes**, igandean 3 urte egingo dituzulako. Muxu potolo bat familiakoen eta bereziki, Markelen partez.



• Zorionak, **Adeli,** asteazkenean 63 urte egin zenituelako.



• Zorionak, **Maialen,** igandean 3 urte egin zenituelako. Muxu bat familiakoen partez.



• Zorionak gure etxeko printzesari urriaren 27an 5 urte egin zituelako. Muxu handi bat, **Janire!**



• Zorionak, **Lore**, urriaren 30ean 7 urte egingo dituzulako. Segi beti bezain alai! Ondo pasa! Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Unai,** zure 6. urtebetetzean. Muxu handi bat etxekoen eta bereziki, Irene eta Claudiaren partez.



• Zorionak, **Oihane,** bihar 2 urte beteko dituzulako. Familiakoen partez, muxu potolo asko.



• Zorionak, **Galder,** zure hirugarren urtebetetzean. Familiakoen, eta bereziki, Naroaren partez.



• Zorionak, **Nerea,** bihar 5 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki Mikelen partez.



• Zorionak, **Xuban,** zure lehenengo urtebetetzean! Laztan handi bat etxekoen partez!



• 50 urte elkarrekin! Ez da marka makala! Ondo ospatu zapatuan zuen urrezko ezteiak. Zorionak eta mila muxu zuen seme-alaben eta biloben partez.



• Zorionak, **Ander eta Mikel,** astelehenean 4 urte egingo dituzuelako. Familiakoen eta Estherren partez.



• Zorionak, **printzesas,** zuen 5. eta 8. urtebetetzean. Muxu handi bat etxekoen partez.



• Kosta zaio iristea, baina, azkenean, bihar **Intzak eta Beñatek** lau urte!!! Zorionak eta muxu handi bana etxeko guztion partez! Bihar ospatzera!

## OSPAKIZUNAK Zortzigarren mailako bazkaria



"Aurten ere, Ikastolako 8. mailako bazkaria izan dugu 1964an jaiotakook. Ez ginen asko elkartu, baina izugarri ondo pasatu genuen aspaldiko kontuei hautsa kentzen. Datorren urteko bazkarirako eguna ere jarri genuen: urriaren 22an izango da. Animatzen zaretenok, urriaren 14a baino lehen eman behar duzue izena, Arantzazuri (639 403 903) edo Imanoli (625 709 365) deituta. Apuntatu egun hori zuon agendetan!".

**Erretratu bakarreko agurra: 2 euro.**
**Argazki bikoitza: 3 euro.**
**Hirukoitza: 5 euro.**
**Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro.**
Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguazten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. BARRENeko bulegora 12:00ak baino lehen, edo *barren@elgoibarkoizarra.com* e-postara bidali.

**Lurreko telebista digitalari esker telebista kate gehiago ikusten ditugu orain.**

# Telebista ikusteko ohiturak aldatu dituzu?



Telebista gauean ikusteko ohitura neukan, baina oraindik ez dut TDT aparailua erosi, eta beraz, orain ezin dut logelan telebistarik ikusi. Egongelan eta sukaldean badaukagu, baina telebista lasai-lasai ikustea gustatzen zait. TDTren faltan, DVDak ikusten ditut orain logelan.

**Alaitz Merino**
**25 urte, zerbitzaria**



Lehen baino kate gehiago daude orain, baina lehen bezala, orain ere ganorazko gauza gutxi dago ikusteko. 27 kate ikusten dira gutxienez gure etxean, baina nik betikoak ditut gustukoen. Futbola, pilota partidak, eta halakoak ikustea gustatzen zait.

**Francisco Suarez**
**57 urte, soldatzailea**



Ez daukat telebistarik etxean. Orain urtebete inguru izorratu zitzaidan, eta ganorazko gauzarik egoten ez zenez, ez nuen berririk erosi. Telebista gabe bizitzera ohitu naiz, eta ederki bizi naiz. Prentsa irakurtzen dut, eta ez dut uste jokoz kanpo nagoenik.

**Nerea Altxu**
**30 urte, berdintasun teknikaria**



Kate gehiago badaude, bai, baina nik lehengo kateak ikusten ditut orain ere. Tele5 eta Antena3 gustatzen zaizkit gehien, gaueko saioak bereziki. Egia da, hala ere, animaliei buruzko saioak ere gustatzen zaizkidala, eta Natura katea adibidez gustukoa dut.

**Sara Estevez**
**55 urte, etxekoandrea**

---



*2008ko azaroaren 12an hil zen.*
II. URTEURRENA

ANGEL GARATE ALBIZU

eta

ARRATE GARATE ZENDOIA

*Erraza izan zen zuek maitatzea.*
*Ezinezkoa izango da zuek ahaztea.*
*Beti gurekin izango zaituztegu.*



*2002ko urriaren 27an hil zen*
VIII. URTEURRENA

*Meza urriaren 30ean, zapatuan, izango da arratsaldeko 19:00etan*
*Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*

**OKINDEGIA**

31 domeka IBARRENEA
1 astelehena BOLINTXO

**FARMAZIAK**

| | |
|---|---|
| | 24 ORDUZ |
| 29 | Garitaonandia-Bidasolo |
| 30 | Zabaleta |
| | Goizez: Yudego |
| 31 | Zabaleta |
| 1 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 2 | Ibañez |
| 3 | Garitaonandia-Bidasolo |
| 4 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 5 | Fernandez |

Ibañez
Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagartza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta
Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

**INFORMAZIO GEHIAGO:**




Egin klik
*www.elgoiBARREN.net*

## 30 zapatua

### Feria

**9:00 Azken zapatuko feria**

Nekazaritza eta abeltzaintza feria egingo dute Nafarroa Plazan. 12:00etatik aurrera Kale Kantariak irtengo dira. Gaur, entsegua egingo dute 19:00etan Kultur Etxeko sotoan.

### Feria

**16:15 Manifestazioa**

'Torturarik ez' lelopean Donostian egingo den manifestaziora joateko autobusa. King-Kongeko autobus geltokian.

## 3 eguaztena

### Hitzaldia

**19:00 'Kantuaren gainean... eta azpian'**

Anari abeslariak hitzaldia eskainiko du *Euskara ala Ezkara* zikloaren barruan.

## 4 eguena

### Bilera

**19:00 Arnaldo askatu, politika askatu**

Plataformako kideek bilera informatiboa egingo dute.

## 5 barixakua

### Bisita

**18:00 Memoria historikoaren autobusa**

Memoria historikoaren autobusa Elgoibarrera iritsiko da. Kultur Etxe aurrean egongo da.

### Antzerkia

**20:30 'Xabinator'**

Gorringo antzerki taldeak Xabinator antzezlana taularatuko du. Herriko Antzokian.

## ORDU ALDAKETA, ZAPATUAN

Asteburu honetan neguko ordutegian sartuko gara eta, beraz, ordu aldaketa egin beharko da. Zapatutik domekarako gauean ordulariak ordubete atzeratu behar dira: hau da, goizeko 3:00etan 2:00ak izango dira.





**LUDOTEKAKO EKINTZAK**

| |
|---|
| BARIXAKUA 29 |
| Jolas librea 17:00 |
| ASTELEHENA 1 |
| Itxita |
| MARTITZENA 2 |
| Gorputz espresioa (LH4-LH6) 17:30 |
| EGUAZTENA 3 |
| Eskulana: 'Arrate arratoia' 17:30 |
| EGUENA 4 |
| Hileko jolasa: 'Cartagena' 17:30 |

**GAZTELEKUKO EKINTZAK**



**CAPOEIRA TAILERRAK**
ANTOLATU DITUGU, AZAROAREN 13rako eta 19rako.

IZENA EMATEA DOAN DA eta AZAROAREN 7a IZANGO DA AZKEN EGUNA.

**ANIMATU ZAITEZ!!!!**




**«Lope»**
29, barixakua: 22:15
30, zapatua: 19:00/22:15
31, domeka: 19:00
1, astelehena: 21:30

**«Como perros y gatos»**
31, domeka: 16:30

**«Debekatuta dago oroitzea» (Ongarri zinekluba)**
4, eguena: 21:30

## Erretratu zaharra



**1968**

Aste honetako erretratu zaharra Antonia Aldalurrek ekarri du BARRENeko erredakziora. 1968. urteko erretratua da, eta Zumaian aterata dago. Egun hartan arrantza lehiaketa egin zuten Zumaian, eta Elgoibarko La Union elkartekoek ere hartu zuten parte. Ikus ditzagun zeintzuk diren argazkian azaltzen diren gizon horiek:

**Goiko ilaran, ezkerretik hasita:** Ezezaguna, ezezaguna, Martin Agirregomezkorta “Muniola” (†), Jose Maria Ramirez (†), ezezaguna, Jose Maria Txurruka eta Valentin Aranzamendi “Katei” (†). **Behean, ezkerretik hasita:** Manolo “navarrico” (†), Pako Irusta “Olaso” (†), Jesus Jauregizar, Julio Bueno (†) eta Antonio Mugertza (†).



ESKERTZA

DONATO ARRIZABALAGA UGARTEBURU

*Maite zenitun lagunak eta*
*mendi zelaien distira*
*zure ekintzen oroitzapenak*
*gurekin gelditzen dira*



*2010eko urriaren 21ean hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Asima**
Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
*www.biena.es*
*info@biena.es*

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

**Imar**
Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

**Lodoso Leihoak**
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
*www.fjlodoso.euskalnet.net*

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Igeltseritza

**E. Arandia**
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

## Lorezaintza

**Pagoa loradenda**
Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307

## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

**Ibámar**
Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

**Ongi**
Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 7 · Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

**Santana iturgintza eta instalazioak**
Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

**Zubizarreta instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44

## Autoentzako tindatutako kristalak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabilioia
☎ 943 74 30 94

## Sarrailagintza

**Giltzak**
Arragueta, 3 (Eibar)
☎ 943 701 391
*www.giltzak.com*

## Proiektu eta erreformak

**Estudios Arrillaga**
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698

## Elektrizitatea

**Carranza**
Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Joseba**
Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76 / 608 774 032

## Pinturak

**Blok dekorazioa S.L.**
Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

**Ku Kolorea**
Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87

Gorringok aurkezten du:

# XABINAITOR

EUSKARAZ





## AZAROAK 5 OSTIRALA

## HERRIKO ANTZOKIAN

## 20:30ean



Anjel ALKAIN | Mikel PAGADI | Asier SOTA | Egoitz LASA | Mikel LASKURAIN | Ainere TOLOSA | Ixabel AGIRRE-SAROBE

ELGOIBARKO UDALA KULTURA

elgoibar bizi-bizixa!

IKUSKIZUN ESZENIKOAK
Sarrera Salmenta
kutxa
CAJEROS SERVIKUTXA
943 00 12 00
www.kutxa.net

SAREA



ANARI (hitzaldi-kontzertua)

*"Kantuaren gainean, eta ... azpian"*

Aurkezlea: Jon Gurrutxaga

Azaroak 3, asteazkena

**Hitzaldia KULTUR ETXEAN izango da, 19:00etan hasita**